


Euskal AEko BPGk urte arteko %0,3ko murrizketa izan zuen 2012ko lehenengo hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, aldakuntza negatiboa izan da, baita ere, (%-0,3)

Euskal AEko BPG %0,3 murriztu zen urte artean 2012ko lehenengo hiruhilekoan, EUSTATEk landutako datuen arabera. Datu honekin tasa negatiboetara bueltatzen gara, zazpi hiruhilekotan hazkunde positiboak izan ondoren. Espainiako ekonomian, tasa %-0,4 izan da, INEk argitaratutako aurrerapen-zenbatespenaren arabera.

Aurreko hiruhilekoaren aldean Euskal AEko BPGk hazkunde negatiboa (%-0,3) izan du lehen hiruhileko honetan; aurreko hiruhilekoan ere negatiboa (%-0,2) izan zen hiruhilekoen artekoa. Hiruhilekoen arteko aldakuntza hau Espainiako ekonomiak edukitako berbera (%-0,3) izan da, INEren zenbatespenaren arabera.

1. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Iturria: EUSTAT - Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak - eta INE

Eskaintzaren ikuspuntutik, hiruhileko honetako urte arteko bilakaera bereziki markatu dute bai industriaren, bai eraikuntzaren bilakaera negatiboagoek, eta zerbitzuen oso hazkunde apal batek; azken hau zor izan zaio batez ere merkatuko zerbitzuen hazkunde tasaren murrizketari.

Bai lehen sektorearen, bai produktuen gaineko zerga garbien urte arteko bilakaera aurreko hiruhilekokoa bezalatsukoa izan da.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	I
Nekazaritza eta arrantza	24,7	-7,6	-13,9	-16,0	-21,6	16,9	18,0
Industria	1,8	2,1	3,7	3,3	1,5	-0,2	-1,1
Eraikuntza	-9,8	-5,3	-4,6	-5,6	-6,0	-4,8	-5,9
Zerbitzuak	0,6	0,9	0,8	1,0	1,3	0,6	0,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,0	0,2	0,0	-0,5	0,3	0,9	0,8
BPGda merkatuko preziotan	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2	-0,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Lehen sektorea %18 hazi da urte artean eta %41,3 murriztu hiruhileko artean.

Industrian %-1,1 eduki dugu urte artean; tasa negatiboak dituen bigarren hiruhilekoa da, positiboak sei hiruhilekotan izan ondoren. Hiruhileko artean, apalagoa da joera negatiboa (%-0,2); tasa negatiboak dituen hirugarren hiruhilekoa da, jarraian.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011				2012
	I	II	III	IV	I
Nekazaritza eta arrantza	-41,8	6,6	25,3	50,3	-41,3
Industria	0,7	1,3	-0,6	-1,6	-0,2
Eraikuntza	-2,7	-2,0	-1,5	1,3	-3,8
Zerbitzuak	0,3	0,4	0,0	-0,1	-0,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,8	0,6	1,2	1,0	-2,0
BPGda merkatuko preziotan	0,3	0,2	0,0	-0,2	-0,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntzak jaitsiz darrai; hiruhileko honetan eta urte artean %5,9 jaitsi da. Aurreko hiruhilekoan izandako beherakadaren aldean puntu bat eta hamarren bat gehiago. Hiruhilekoen arteko tasa ere negatiboa da (%-3,8).

Merkatuko zerbitzuen sektorean jaitsiera dago hazkunde-tasetan, baina bai urte artean, bai hiruhileko artean %0,1 hazi da. Aurreko hiruhilekoen aldean, urte artekoa zazpi hamarren txikiagoa da, eta hiru hamarren txikiagoa hiruhilekoen artekoa.

Ez-merkatuko zerbitzuen sektorean, aurreneko hiruhileko honetan hobetoxeago, bai urte artean (%+0,4), bai hiruhileko artean (%-1,4). Hiruhilekoen arteko jaitsiera-eritmoa apaldu egin da.

Zerbitzuetan, sektore osoan, hazkunde txikia (%0,2) dago aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, aurreko hiruhilekoetan baino askoz txikiagoa, eta negatiboa bigarren aldiz jarraian hiruhilekoen artean (%-0,1).

Sektore-agregatuen joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko bilakaera negatiboa ekarri du (%-0,5), 2010eko lehen hiruhilekotik aurreneko aldiz. Hiruhilekoen artean ere tasa negatiboa dago (%-0,2) lehen hiruhilekoan. Hiruhilekoen artean balio erantsian tasa negatiboak dituen hirugarren hiruhilekoa da.

Eskariaren aldetik, aurreko hiruhilekoetan bezala, BPGk hazkundeari egindako ekarpena positiboa da; bai esportazio- bai inportazio-mailetan jaitsierak izan dira.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	I
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	0,9	0,6	0,8	0,3	0,9	0,5	0,1
Herri-administrazioen azken kontosumoko gastua	2,3	-0,8	1,3	1,3	-2,0	-3,6	0,2
Kapital-eraketa gordina	-6,0	-1,5	-1,8	-1,0	-0,2	-2,8	-4,2
Barne-eskaria	-0,5	-0,1	0,3	0,2	0,2	-1,0	-0,9
Guztizko esportazioak	7,6	9,0	13,3	3,2	12,4	7,3	-2,3
Guztizko inportazioak	5,5	7,4	11,6	2,1	11,1	4,9	-3,5
BPGda merkatuko preziotan	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2	-0,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Familia-etxeen azken kontsumoaren gastuan (Kontsumo pribatua) desazelerazioa dago, urte artean %0,1 hazi delarik; bigarren hiruhilekoz jarraian lau hamarrenez txikiagoa da aurreko hiruhilekoko baino. Hiruhileko artekoa (%-0,2) hamarren bat negatiboagoa da aurreko hiruhilekoaren aldean.

Kontsumo publikoan (Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua) %0,2ko urte arteko hazkundera dago, gorako joera arinari esker. Hiruhilekoen artean %2,3ko tasa positiboa dago.

Bai kontsumo pribatua, bai publikoa urte artean hazi direnez, hamarren bat hazi da **Azken kontsumoko gastua** (Familia-etxeen azken kontsumoa gehi Administrazioena). Aurreko hiruhilekoaren aldean bost hamarreneko hazkundera dago.

Kapital eraketa gordinak (Inbertsioa) beheraka darrai, urte artean %4,2 jaitsi delarik. Hiruhileko artean eta laugarren hiruhilekoz jarraian %1,5 jaitsi da. Jaitsiera hori zor zaie ekipo-ondasunetako inbertsioari eta batez ere eraikuntzaren bilakaerari.

Barne eskaria, zeina osatzen baitute Azken kontsumoko gastuak eta Kapital eraketa gordinak, murriztu egin da berriz urteko aurreneko hiruhilekoan. Urte artean, bagenuen %1eko jaitsiera 2011ko laugarren hiruhilekoan; 2012ko aurrenekoan berriz ere %0,9 negatiboa. Bilakaera horren arrazoiak kontsumoaren hazkunde apala eta inbertsioaren jaitsiera nabarmena dira.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011				2012
	I	II	III	IV	I
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	0,2	0,6	-0,2	-0,1	-0,2
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	-1,6	1,4	-0,9	-2,4	2,3
Kapital-eraketa gordina	0,0	-0,8	-0,1	-1,9	-1,5
Guztizko esportazioak	7,6	-4,4	8,3	-3,7	-2,1
Guztizko inportazioak	8,7	-5,3	7,1	-4,9	0,1
BPGda merkatuko preziotan	0,3	0,2	0,0	-0,2	-0,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpo sektorearen ekarpena BPGri positiboa izan da, aurreko hiruhilekoetan bezalaxe, baina badago ezaugarri berri bat: kanpo merkataritzaren hazkunde tasetan nolabaiteko unadura igartzen da. Kanpo saldoaren ekarpen positibo berri hau osatzen dute esportazioen urte arteko %2,3ko jaitsierak eta inportazioen %3,5eko jaitsiera handiagoak.

BPGren bai urte arteko, bai hiruhileko arteko jaitsierek enplegu-galera ekarri dute berriz ere, **Lanpostuetan** neurturik: urte artean %1,7ko jaitsiera, eta %0,8 2011ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Urte artean enplegu-galera dagoen hamabosgarren hiruhileko jarraian da.

Lanpostu galera, bai urte artean, bai hiruhileko artean, Industrian, Eraikuntzan eta Zerbitzuetan metatzen da. Industrian areagotu egin da jaitsiera: %3 urte artean eta %1,7 hiruhileko artean. Eraikuntzan etengabea izan da jaitsiera 2008ko lehen hiruhilekotik; oraingoan %11,7 urte artean eta %3,3 hiruhileko artean. Zerbitzuetan urte arteko aurreneko jaitsiera (%0,1) dugu zortzi hiruhilekotan. 2011ko laugarren hiruhilekoaren aldean enplegua %0,3 jaitsi da. Datu positibo bakarra, eragin txikikoa, lehen sektoreko hiruhilekoen artekoan dugu, %0,5eko hazkundera; urte artean %0,3ko jaitsiera.

BPGren bilakaera oso antzekoa izan da **hiru herrialdeetan**. Bizkaian urte arteko %-0,4; Araban eta Gipuzkoan %-0,3 Hiruhileko artean: Gipuzkoan %-0,4; Araba eta Bizkaian %-0,3.

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gainera prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gainera datu-bankua](#)